



Hegoa Institutuaren (UPV/EHU) Dokumentazio Zentroak garapenari eta nazioarteko lankidetzari lotutako gaietan espezializatutako informazio eta dokumentazio zerbitzuak eskaintzen ditu.

Zentroa 1988. urtean jarri zen abian eta, harrez geroztik, gai horiei buruz egin diren azterketa eta eztabaida nagusiak bildu ditu. Era horretan, ikerketa, prestakuntza eta hedapena sustatu ahal izan ditu, hala arlo akademikoan, nola gizarte-eragileetan.

Dokumentazio Zentroko zerbitzuak arian-arian egokitu dira, dokumentazioaren eta informazioaren teknologia berrietan izan diren aldaketen arabera. Aldaketa horietako gehienak ingurune digitalean izan dira.

Zentroa funtsezko osagaia izan da Euskal Autonomia Erkidegoan nazioarteko lankidetzaren eratzeko orduan, eta arin hedatu da, bai estatuan, bai mundu osoan barrena.

Ordutegia	Helbidea	Kontaktua
Astelehenetik ostegunera: 9:30-14:00 eta 15:00-18:15 Ostiraletan: 09:30-14:00	Hegoa Zubiria Etxea UPV/EHU Lehendakari Agirre, 81 48015 Bilbo	946 01 38 56 hegoa@ehu.eus



Liburutegi digitala

<http://biblioteca.hegoa.ehu.eus>



Hegoa+ <http://meta.hegoa.ehu.eus>

Hegoa+ Hegoa Institutuaren baliabideen meta bilatzailea da. Hegoaren informazio baliabide guztien artean bilaketak egiteko diseinatuta dago zerbitzu hau; dena kontsulta bakar batean bilatzeko.

Zerbitzua honako atal hauetako informazioa bereizteko, aukeratzeko eta deskargatzeko prestatuta dago:

Liburutegi digitala: 21 000 erregistro baino gehiago
Hegoaren argitalpenak: 500 erregistro baino gehiago
Hegoa Multimedia: 200 erregistro baino gehiago
Hemeroteka: 3 400 erregistro baino gehiago
Tokiko Giza Garapen Iraunkorraren ataria: 1 100 erregistro baino gehiago
Ekintza Humanitarioa eta Garapenerako Lankidetzari buruzko Hiztegia
Bantaba: 2 900 erregistro baino gehiago
Hegoaren web orrialdea



Hegoaren argitalpenak <http://publicaciones.hegoa.ehu.eus/es>

Hegoa Institutuaren argitalpenen aukeraketa da. Dokumentu bakoitzaren deskribapen zehatza eskaintzen da. Klasifikazioaz gain, edukiaren aurkibidea, laburpena eta testu osoa, PDF formatuan, ikus daitezke. Hegoaren argitalpen guztiak Creative Commons lizentziapean daude.

Hegoaren argitalpenak:

Azken argitalpenak	Hegoak Zabalduz	Informazio baliabideen buletina
Hegoako Lan Koadernoak	Hariak. Recreando la educación emancipadora	Master Amaierako Lanak



Hegoa Multimedia <https://multimedia.hegoa.ehu.eus>

Ikus-entzunezko materiala, garapenari eta nazioarteko lankidetzari buruzkoa. Bideoak online erreproduzitzeko gailua dauka zerbitzu honek, audioak eta bideoak deskargatzea ahalbidetzen duena. Edukien sailkapen bikoitza ere egin daiteke, horiek behar bezala kudeatzeko eta bilatzeko.



Hemeroteka <http://hemeroteca.hegoa.ehu.eus>

Aldizkari espezializatuen katalogoa. Igotako aleen edukiei buruzko informazioa eskaintzen da, aurkibide forman, baita aztertutako aldizkariaren web orrien estekak ere.



Gaikako atariak

Tokiko Giza Garapen Iraunkorraren ataria	Saharako Giza Eskubideen mapa
Euskal Lankidetzaren Publikoaren ataria	Bakearen aldeko aktibismo feministaren mapa
Ekintza Humanitarioa eta Garapenerako Lankidetzari buruzko Hiztegia	Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra
Garapenerako Hezkuntzaren Hiztegia	Garapenari buruzko Ikasketen V. Nazioarteko Biltzarra
Enpresa Transnazionalen Hiztegi Kritikoak	ToShare Begiratokia



Bestelako zerbitzuak

Kontsultetarako eta argitalpenak maileguan hartzeko aurrez aurreko zerbitzua	Liburutegi digitalean egondako berriei buruzko informazio alerta eta bestelako zerbitzuak	Kontsultetarako eta ordenagailuak erabiltzeko gela
--	---	--

Finantzatzailea:

